

Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Zuraideko Talde Abertzalea
10. Zenbakia – 2019ko uztaila



**Zuraide
Indarrean**

**taldeak bere 6 urteak
ospatuko ditu**

2020an, eta zuengain

kontatzen dugu egun

horren kausitzeko.

2014ean, gure herriari

berritzea ekartzeko

xedea zuen taldea

osatu genuen. Bost

urteren ondotik,

oraindik hor gira,

esperientzia

gehixagorekin baina

batez ere hunkigabeko

nahikeriarekin. Azken

Europako hautes-

kundeeak erakutsi

digute Zuraidar

anitzek gureak

bezalako baloreak

partekatzen dituztela :

humanismoa,

elkartasuna, justizia,

garapen iraunkorra,

horiei gehituz ere

euskararen eta euskal

kulturaren sustatzeko

eta defendatzeko

nahikeria. Oraindik

segur gira herriko

biziari atxikiak

zaretela, eta zuen

ahotsa entzunarazi

nahiko duzuela.

Errecartia, Ithurriosenea, Ttipienea, ...

Etxebizitzari eta politika publikoei loturiko erronkek orohar (mugikortasuna, ingurumena, ekonomia, ...) herriaren baita hirigune elkargoaren eskumenak ere aise gainditzen dituzte.

Hala ere, iduritzen zaigu ez dugula erronka horien parean geldirik egon behar, herriko erabakiak guzien interesa lehenetsiko duen politika oso baten barne kokatu behar ditugu lehenbailehen.

Horrek azaltzen du zergatik, Errecartia eta Ithurriosenea etxeen geroari buruzko proposamenetan, bi aldiz baina alferrik, Zuraiden bizi nahi duten gazteendako bizitegien egitea galdetu dugun.

Auzapez jaunak erraten digu « herrientzat, alokatzeen kudeaketa konplikatu dela ».

Eta zer?

Guretzat, baitezpadakoa da lurra guzien ontasuntzat hartzea eta nagusitasun publikoaren segurtatzea ; eta herrien higiezin ontasuna garatzekoa da. Zailtasunek ez dute arrasta bat bilakatu behar, eta etxebizitza politika handinahia behar da.

Euskal Herriko Garapen Kontseiluak « etxebizitza larrialdia » dekretatu du, eta alokairu pribatuen tokiko behatokiaren azken txostenak arrazoia eman dio.

Helegiterik gabeko ohartarazteak dira :

- Euskal Herria lurralde karioenatarik da, irabazien batazbestekoa doi-doi Frantziako batazbestekoa delarik ;
- Azken urteotan, orokorki, lehen etxebizitzaren eta alokatze pribatuen kopurua baino fiteago handitu da bigarren etxebizitzaren kopurua ;
- Batazbesteko alokairua 547€ eta 728€ artekoa da (itsasbazterra kanpo) ;
- Alokatzeko diren etxebizitzaren parte %20 baino apalagoa da Zuraiden, inguruko herrietan %20 baino gorago denean, eta batazbestekoa %28an delarik.

Ihardetsi behar dugu. Bizitegiei doakionez, eskaintza logika batetik eskaerei erantzuteko logika batera pasa behar du gure lurraldeak ; eta Zuraidek bere parte har dezake, gure gazteei zuzenduriko urteko eta neurriko alokairuak bideratuz, azalera ttipiko bizitegien arraberritze edo eraikitzeak sustatuz.

Azken urteotako bizitegien ekoizpenak espekulazioa elikatu du, 4 etxebizitzetatik 3k ez baitiete tokiko biztanleriaren beharrei erantzuten.

Euskal Herriko biztanleriaren %70ak etxebizitza sozial bat ukaten ahal luke !

Etxebizitza sozialak abantailatuz diegu biztanleriaren eskaerei erantzunen. Kontutan ez hartuz, kanpoko biztanleria aberatsa erakarriko dugu oraindik gehiago.

Gizartearen aldaketen arabera erantzunak ere proposatu behar ditugu, azalera ttipiko bizitegiak proposatuz adibidez, buraso bakarrekoko familientzat, bakarrik bizi direnentzat, edo bikote gazteentzat.

Apirilaren 10eko herriko kontseiluan aurkeztu zen proiektuak, dinamika horri erantzunen ziola uste izan dugu, herriarenak diren bi etxeren arraberritzea aurreikusten zelako, neurriko alokairuko bizitegiak sortuz (10 Ithurriosenean eta 3 Ttipienean).

Pena da proiektua ez zela egun hartan berean bozkara eraman. Zalantzan emana izan da... ondoko herriko kontseiluan berean !

ZIRIMIRI

● ● ● ZURAIDE
MUNDUARI ZABALIK
elkarte berriari ongi
etorri.

Elkartearen
estatuetan agertzen
den bezala, Zuraiden
belaunaldi eta kultura
ezberdinen arteko
elkarretaraztearen
garatzea du helburu.
Beren herritik ihes egin
behar izan duten
atzeritarren errezibitzea
izan daiteke lehen
urrats bat.

Italiak eta Greziak beren
ateak hetsi dituztenetik,
etorkin anitz Espainitik
Hendaiara heldu da.
Egoera horrek jadanik
dozena bat harrera
elkarte sorrarazi ditu
Euskal Herrian.

● ● ● Euskarabentura

Euskal Herri osoko
beste ehun bat
neraberekin batera,
Euskarabenturan parte
hartzen duten Zuraideko
gazteak zoriondu nahi
ditugu : Euskal
Herriaren ezagutza
helburu, 7 probintzien
zeharkatzen ari dira
(783km), euskararen
erabilpena azkartuz
bistan dena.



Barnetik ikusita (Serge Zudaire-ren eskutik, herriko oposizioeko hautetsia – Zuraide Indarrean zerrrenda)

Behin baino gehiagotan, herriko agirietan (2017, 2018), auzapez jaunak oposizioa kritikatu du ; aipamena: « oposizioa proposamen orori ihardukitzailea zaio ». Elkarrekin lan egin nahi ez izana ere leporatzen digu, bakea gorapatuz eta aldi berean kalapita akulatuz.

Baina nork du elkarrekin ez lan egiten? Nork du kalapita akulatzen? Oposizioak ala gehiengoak?

Bilkura agirien berriz irakurtzea proposatzen dizuet (zuraideindarrean.eu gure webgunean) eta ohartuko zarete gure herriarentzat inportanteak ziren proiektu guzrien alde bozkatu dugula.

Haatik, txosten guzi horiek beti bilkura informaletan edo orotariko gaietan aurkeztuak dira, hots, sistematikoki lan dokumenturik gabe. Urtero, aurrekontu proposamena galdetu beharra dugu, eta horrek lantzeko bi edo hiru egun baizik ez dizkigu uzten ! Segur, legeak ez dio behartzen, baina auzapez jauna dokumentuak « demokraziaren izenean » helarazteaz espantuka ari da... behin galdetua diogularik!

Bixentek ondoriotasunez utzi txostenarekin gertatutakoa adibide ona da: otsailaren 7ko herriko kontseiluan auzapez jaunak galdetu zigun « zer egin Zuraideko etxeaz? ».

Nere aldetik, etxe horretan Zuraideko gazteendako apartamenduen egitea proposatu dut. Eztabaida denboran, auzapez jaunak jakinarazi digu arranda emaleekin solasaldiak hasiak zituela, eta berak galdeturik, Ttipienea etxea proiektuaren barne sartu dutela.

Zergatik orduan galdera hori?

Aurrekontuaren bozka mementoan, jakin dugu partaidearen hautua egina zuela, eta laster proiektua bozkatu beharko dugula (10 apartamentu lthurriosenea etxearentzat eta 3 Ttipienezarentzat ; beti dokumenturik edo planorik gabe).

Berrikiago, azken herriko kontseiluan eta « orotariko gaietan », jakinarazia zaigu Zuraideko familia batek Ttipienea etxea erosteko proposamen bat egin duela. Auzapez jaunak behin baino gehiagotan errepikatu du : « ez naiz saltzaile ». Baina proposamen bat egiten digu eta erantzun laster bat behar du. Nik galdeturik, eztabaida aste batez gibelatzea onartu du. Hiru proposamen genituenek (nik eginak baina auzapez jaunak bereganatuak bilkura-agirian), halako erabaki bat hartu aitzin, gogoetatzeko, informatzeko eta Zuraide Indarrean taldearekin trukatzeko beharra nuen.

Argitasunak bildurik eta bilkura-agiria irakurririk, bilkura faltsutu horretan ez parte hartzeko erabakia hartu dut.

Bai, nahiz eta auzapez jaunak argitasun eta dokumentu guti (batere) helarazi, oposizioa lanean eta gogoetan ari da, eta proposamen iturri da!



Trantsizio energetikoa, gurea ere da!


Aktualitate bizian den larrialdi klimatikoak parioen araberako erantzunak behar dituelarik, eta **Frantzia trantsizio energetikoari begira berantean eta biziki erabea** delarik, lurraldeek egiteko handia dute, bereziki energia berdeen ekoizpen eta banaketan.

Ikusirik bertan xahutzen den energiaren %99a inportatua eta gehiengoz jatorri fosil eta nuklearrekoa dela, 2014an I-Ener elkarte sortu zen Ipar Euskal Herrian, tokian berean energia garbi eta herritarraren ekoizteko xedearekin. Hala, partikularrek, enpresek eta kolektibitateek energia berriztagarrien garapenean parte hartzen dute. Herri batzuek beren eraikin publikoetako teilatuetan fotoboltaiko ekoizpen unitateak ezarri dituzte (Uztaritzen eta Hendaiaren lehenik, eta Makean, Bardozen, Baigorri, Izuran, Irulegin, Arrospan, Eiherralarren, Anhaizen, Biarritzen... ondolik).

Horren osagarri, eta herritar energia ekoizten duen enpresa horri jarraikiz, **osoki berriztagarria eta tokikoa den argindar banatze eskaintza bat beharrezkoa zen. Hori proposatzen du Enargiak, interes kolektiboko kooperatibak. Uztailaren lehenaz geroztik, partikular eta enpresek EDFen ber prezioak proposatzen dituen hornitzaile horren harpidetza har dezakete. Hastapen batean, Enargia Biarnoan ekoiztua den hidroelektrizitatean hornitzen da gehienbat. Epe luzeagoan, I-Ener garatzen segitzea eta hala, %100 Euskal Herrian ekoiztu energia garbiarekin zirkuitu laburrean funtzionatzea da helburua.**

Iduritzen zaigu Zuraiden, etxebizitzaren problematikarentzat bezala, energiaren ekoizpena berlokalizatzeko indarran parte hartzen ahal eta parte hartu behar dugula, teilatu batzuk proposatuz (trinketa, eskola...). Herritar guziak ere azkarki bultzatu nahi genituzke Enargiaren eskaintzaren hartzera eta harpidedun-bazkide bilakatzerara.

Xehetasun gehiagorentzat : <https://www.enargia.eus/eu/>



Zuraide indarrean Souraïde dynamique

Groupe Abertzale de Souraïde

Numéro 10 – Juillet 2019

“ En 2020,
Zuraide
Indarrean va fêter ses
six ans et pour cela
nous comptons sur
vous pour que cette
journée soit réussie.
En 2014, nous avons
formé un groupe
désireux d'apporter
du renouveau à notre
village. Cinq ans plus
tard, nous sommes
toujours là avec un
peu plus d'expérience
et surtout une
motivation intacte.
Les dernières élections
européennes ont
montré que beaucoup
de Zuraidars
partageaient nos
valeurs d'humanisme,
de solidarité, de
justice et de
développement
durable ajoutées à
notre volonté de
défendre et promouvoir
la langue et la culture
basques. Nous restons
persuadés que vous
êtes sensibles à la vie
du village et que vous
voudrez faire
entendre votre voix.

Errecartia, Ithurriosenea, Ttipienea, ...

Les enjeux liés à l'habitat, comme à toutes les politiques publiques (mobilité, environnement, économie, ...) dépassent largement le périmètre de compétence de la commune, et même de la communauté d'agglomération.

Pour autant, nous pensons que nous ne devons pas rester passifs face à ces enjeux et que, dès que nous le pouvons, nous devons inscrire les décisions municipales dans une politique globale privilégiant l'intérêt commun.

C'est ce qui explique que, par deux fois, lors des propositions concernant le devenir des maisons Errecartia et Ithurriosenea, nous avons demandé, en vain, de les transformer en logements pour les jeunes souhaitant vivre à Souraïde.

Monsieur le maire nous explique que « la gestion locative est compliquée pour une commune ».

Et alors ?

Pour nous, il est urgent de considérer le foncier comme un bien commun et d'en réassurer la maîtrise publique ; et le patrimoine immobilier des communes est à développer. Les difficultés ne peuvent pas être un frein à ce que nous ayons une politique de l'habitat ambitieuse.

Le conseil de développement du Pays Basque a décrété « l'urgence logement » et le dernier rapport de l'observatoire local des loyers privés lui donne raison.

Les constats sont sans appel :

- Le Pays Basque fait partie des territoires les plus chers alors que le revenu moyen se situe tout juste dans la moyenne hexagonale ;
- Globalement, ces dernières années, la part des résidences secondaires a augmenté plus vite que les résidences principales et que le parc locatif privé ;
- Le loyer moyen (hors littoral) varie de 547 à 728 euros
- La part des logements locatifs à Souraïde est inférieure à 20%, alors que les communes alentour sont à plus de 20% et la moyenne à 28 %

Nous devons réagir. Notre territoire doit passer d'une logique d'offre à une logique de réponse aux besoins en logement ; et Souraïde peut prendre sa part en favorisant systématiquement le logement habité à l'année, et en promouvant la construction ou la rénovation de logements de petites surfaces, à loyers très modérés, à destination de notre jeunesse.

La production de logement de ces dernières années a alimenté la spéculation dans la mesure où 3 logements sur 4 ne répondent pas aux besoins de la population locale.

70% de la population du Pays Basque est éligible à un logement social !

C'est en privilégiant le logement social que nous répondrons aux besoins de notre population. C'est en l'ignorant que nous attirerons davantage de population extérieure et fortunée.

Nous devons également répondre aux besoins réels qui correspondent aux évolutions sociétales en privilégiant par exemple les logements de petite surface pour les familles monoparentales, les personnes seules ou les couples jeunes.

Le projet présenté lors du conseil municipal du 10 avril dernier nous semblait correspondre enfin à cette dynamique puisqu'il prévoyait la réhabilitation de deux maisons, propriétés de la commune, pour en faire des logements à loyer modéré (10 à Ithurriosenea et 3 à Ttipienea).

Domage que le projet ne soit pas passé au vote ce jour-là. Il a été remis en cause... dès le conseil municipal suivant !

● ● ● Bienvenue à la nouvelle association ZURAIDE MUNDUARI ZABALIK, Souraïde largement ouvert sur le Monde.

Dans ses statuts, cette association se donne comme but de développer les rencontres intergénérationnelles et de différentes cultures à Souraïde. Cela peut commencer par accueillir des étrangers qui ont dû fuir leur pays. Depuis que l'Italie et la Grèce ont fermé leurs portes, beaucoup arrivent par l'Espagne et se présentent à Hendaye. Cela a fait naître déjà une douzaine d'associations d'accueil au Pays Basque.

● ● ● Euskarabentura

Félicitations à nos jeunes de Souraïde qui, avec une centaine d'autres adolescents du Pays Basque nord et sud, traversent actuellement nos 7 provinces (783 km) dans le cadre d'Euskarabentura : un projet visant à faire connaître le Pays Basque aux jeunes, en renforçant l'utilisation de l'euskara !



Vu de l'intérieur (par Serge Zudaire, conseiller municipal d'opposition - liste Zuraide Indarrean)

A plusieurs reprises, sur les bulletins municipaux (2017, 2018), Monsieur le maire critique l'opposition ; je cite : « l'opposition est réfractaire à toute proposition ». Ou encore il nous reproche de ne pas travailler ensemble, de parler de paix tout en attisant la polémique.

Mais qui ne travaille pas ensemble ? Qui attise la polémique ? L'opposition ou la majorité ? Je vous invite à relire les procès-verbaux (sur notre site zuraideindarrean.eu) et vous vous rendrez compte que nous avons voté favorablement sur tous les projets importants pour notre commune.

Par contre, tous ces dossiers sont toujours présentés en réunion informelle ou en « questions diverses » et systématiquement sans aucun document de travail. Chaque année, il faut réclamer la proposition de budget afin de pouvoir le travailler et cela deux ou trois jours avant ! Certes la loi ne vous l'y oblige pas, mais monsieur le maire se targue de nous le transmettre « dans un souci de démocratie ! » ... une fois réclamé !

Le récent dossier du legs de Bixente en est l'illustration : lors du conseil du 7 février dernier monsieur le maire nous pose la question « que faire de la maison de Zuraide ? »

Pour ma part je propose que cette maison soit transformée en appartements pour les jeunes de Zuraide. Au court du débat, monsieur le maire nous apprend qu'il a déjà engagé des discussions avec des bailleurs sociaux qui ont inclus dans ce projet, à sa demande, la maison Ttipienea.

A quoi bon nous poser la question alors ?

Lors du vote du budget, nous apprenons qu'il a fait le choix du partenaire. Et que l'on sera amené à voter rapidement ce projet (10 appartements pour la maison lthurriosenea et 3 pour Ttipienea ; toujours sans documents ou plans).

Plus récemment, lors du dernier conseil et en « questions diverses », il nous fait part de l'offre d'achat de la maison Ttipienea par une famille de Zuraide. A plusieurs reprises monsieur le maire a répété « je ne suis pas vendeur ». Mais il nous fait une proposition et souhaite que l'on se prononce rapidement. A ma demande, il a accepté de reporter d'une semaine le débat, puisque 3 propositions (que j'avais formulées et qu'il s'est appropriées par ailleurs sur le procès-verbal) se présentaient à nous et que j'avais besoin d'un temps de réflexion, de renseignement et de consultation de l'équipe de Zuraide Indarrean avant de prendre une telle décision.

Les renseignements pris et la lecture du procès-verbal qui a suivi m'ont amené à décider de ne pas participer à cette réunion où les dés étaient pipés.

Oui, malgré le peu de renseignements et de documents (rien) que nous fournit monsieur le maire, l'opposition travaille, réfléchit, et fait des propositions !



La transition énergétique, c'est aussi notre affaire !

Alors que **l'urgence climatique, plus que jamais d'actualité, nécessite des réponses à la hauteur des enjeux**, alors que **la transition énergétique en France est en retard et très timide**, les territoires ont un rôle majeur à jouer, notamment dans la production et la distribution d'énergies vertes.

En Iparralde, en 2014, faisant le constat que 99% de l'énergie consommée ici est importée et majoritairement d'origine fossile et nucléaire, naît **I-Ener**, société ayant la volonté de produire chez nous, une énergie propre et citoyenne. Particuliers, entreprises et collectivités participent ainsi ensemble au développement des énergies renouvelables au Pays Basque. Des communes installent des unités de production photovoltaïques sur les toits des bâtiments publics (Ustaritz, Hendaye les premières, puis Macaye, Bardos, Baigorry, Ostabat, Irouleguy, Arrossa, Saint Michel, Anhaux, Biarritz...).

En complément, et dans la continuité de cette société de production d'énergie citoyenne, il fallait une offre de distribution **d'électricité exclusivement renouvelable et la plus locale possible**. C'est ce que propose **Enargia, société coopérative d'intérêt collectif**. Depuis le 1^{er} juillet, particuliers et entreprises ont la possibilité de souscrire un abonnement auprès de ce nouveau fournisseur au même tarif qu'EDF. Pour commencer, **Enargia s'approvisionne majoritairement en hydro-électricité en Béarn**. A terme, l'idée est de développer encore **I-Ener et de fonctionner ainsi en circuit-court avec une énergie propre 100% issue du Pays Basque**.

Nous pensons qu'à Souraïde, comme pour la problématique du logement, nous pouvons et devons prendre part à cet effort de relocalisation de production d'énergie par la mise à disposition de toitures (trinquet, école...). Nous encourageons aussi vivement tous les habitants à souscrire à l'offre d'Enargia et à devenir abonnés-sociétaires. Pour plus de renseignements : <https://www.enargia.eus/fr/>